

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Bezeroek gure enpresarekiko bidaia bideratu nahi izatea beharra sortzen dugu. Bidaia horretan, bezeroek uste dute badakitela nora egingo duten bidaia, baina errealitatea da ez dakitela. Agentzia berezi samarra da; izan ere, normalean, bidaia-agentziak bezeroei bidaiak antolatzen baino ez dira izaten, haien helmuga zein den jakinda. Enpresa hau itsumustuan egindako bidaia baten antzekoagoa da.

Formulario bat egiten diegu bezeroei agentzian parte hartzen hasi bezain laster. Formulario honek hainbat galdera propio ditu, eta bezeroei emandako erantzunen arabera, munduko leku bat lotzen diegu, leku hori bezeroarekin uztartzeko. Formularioa oso erabilgarria da, bezeroari bidaia ezin hobea egin diezaiotzekulako eta helmuga hori bere gustukoa izan dadin. Ez ditugu herrialdeko monumentuak edo paisaiak kontuan hartzen, herrialde horrek lantzen duen kultura baizik, eta ahal dugun guztia egiten dugu bezeroak herrialdearekin bat egin dezan. Formulario honen bidez, bezeroaren eta bere ustez egingo duen bidaiaren arteko suspense mota bat lortuko dugu. Ere esan behar dugu bezeroen diruari egokitzen gara, hau da, ordaindu ezin duen herrialde bat egokitzen bazaie, antzekoagoak eta ekonomikoagoak bilatuko dizkiogu.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure bidaia-agentzia berezi samarra da bezero bati bidaia bat antolatzen laguntzeaz gain. Antolatzeaz gain, gure bezeroak nora bidaiatuko duten ere aukeratzen dugu. Hau da, gure formularioan oinarritzen gara gure bezeroaren bidaia egokiena zein den jakiteko. Hegaldiak, joango diren herrialdeko mugikortasuna, herrialde horretako ostalua, hotela, ostalua, aterpetxea... antolatzen dizkiegu.

Itsumustuko bidaia moduko bat da bezeroentzat, ez baitakite zein izango den haien helmuga. Agian imajinatzen dute beren herrialde ideala bat dela eta eskemak hausten dizkiegu eta gutxien espero dutena da, baina beren nortasunarekin eta gustuekin gehien egokitzen dena.

Gure agentzia desberdina da; izan ere, gainerako bidaia-enpresek bezeroen laguntza baino ez dute eskaintzen, eta bidaia antolatzen dute. Guk, berriz, misterio kutsua ematen diogu bidaia horri.

